

B

BARREN



Krisia geurean

Olaia

Laser depilazioa

estetika



LASERRA

%20, %30 eta %50 zona guztietan,
nahi duzun konbinaketa eginez.

ADIBIDE OROKORRENAK

- Bularra + Sabelaldea..... 440 €/sesioko.
- Bizkarra..... 360 €/sesioko.
- Bibotea + okatza..... 77 €/sesioko.
- Hanka erdiak + izterondoak.. 266 €/sesioko.
- Besapeak + izterondoak..... 119 €/sesioko.
- Hanka osoak + izterondoak.. 448 €/sesioko.

ORAIN ASTELEHENETAN ZABAIK
9:30 - 12:30 / 13:00 - 19:30

ASTEAZKENAK JARRAIAN
10:00 - 20:00

LARUNBATAK
8:00 - 13:00

Telf. 943 74 27 25 San Inazio, 4 behea - 20870 ELGOIBAR - www.ammergroup.es

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN
SANTA KLARA 13 zkia.(Elgoibar)


BERRIA!!



- Duplexa terrazarekin
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Garaje eta trastelekuak

Etxebizitza obra bertatik ikusteko aukera paregabea

AZAROAREN AMAIERAN
GILTZAK EMANGO DIRA
BISTA EZIN HOBEAK



INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar) - Tlf.: 615 758 480

Konfiantza

Goizero, irriaren konpainiarekin gosaltzea gustatzen zait. Esmatu berri, munduan eta gure inguruan zer geratu den jakitea nahi izaten dut. Lanera iritsi orduko, telebista pizten dut, eta ordenagailua ere bai. Han ere, eguneko berri inportanteenak nabarmentzen dituzte telebista kateek eta egunkarien webguneek. Normalean politika eta ekonomia kontuak izaten dira nagusi, baita atxiloketak, istripuak, lurrikarak eta emakumeen hilketak ere. Azken aldian, ordea, orain arte pentsaezina zen zerbaitekin kezkatzen hasi naiz. Beno, oraindik ez nago kezkatuta, eta esaten digutenez, ez daukagu kezkatzeko arrazoirik. Gure aurrezkiak, hipotekaren hileko kuota ordaindu eta gero geratzen diren diru apur horiek, ondo gordeak daudela ziurtazen digute. Seguru daudela. Hemengo aurrezki kutxek zuhurtziaz jokatu dutela, ondo gestionatutako erakundeak direla, ez porrot egin dute beste horiek bezalakoak, eta horregatik, ez kezkatzeko. Konfiantza izateko, finantza-etxeetan eta gobernuek hartu dituzten neurri politikoetan konfiantza, horixe omen dela krisi hau gainditzeko giltzetako bat: konfiantza.

Bizitza honetan dena dago konfiantzan oinarritua. Senar-emaztearen arteko harremanak konfiantza du oinarri, konfiantza hausten denean, bikotea eten egiten da. Fruta saltzaileak mailatutako fruta saltzen digunean, harengan geneukan konfiantza desagertu egiten da eta frutadenda horretan erosteari

uzten diogu. Gure kotxeak, hozkailuak edo beste edozein etxetresnak inongo justifikaziorik gabe funtzionatzeari uzten dionean, marka horretako tresnarik ez dugula berriz erosiko esaten dugu. Konfiantza kontua da.

Konfiantza izateko eskatzen digute agintariak momentuz. Hori egiteko prest nago. Baina zer egiteko prest daude gure aurrezkiei esker aberastu diren banketxeak eta milioka euroko soldata jasotzen duten gestore eta zuzendaria?

Ainhoa Lodoso



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....

“Zer egiteko prest daude gure aurrezkiei esker aberastu direnak?”

ZEURE BLOGA IZAN NAHI DUZU?

Hauek badute berea



Jarri gurekin harremanetan elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com helbidean

www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



Julio Ibarra

Julio Ibarra kazetariak ia-ia hogei urte eman ditu gauero 'Teleberri' saioa aurkezten. Afalorduan Euskal Herriko etxe askotan albisteak ematen zituen gizona izan da. Orain, telebistako lana alde laga eta Bilboko metroko komunikazio eta marketing zuzendaria da; baina kazetaritza ez du alde batera laga. Telebista eta irratiko hainbat saiotan parte hartzen du tartean-tartean. Hitzaldiak ere ematen ditu, martitzenean eta eguenean etorriko da gurera.

Edurne Burgaña

“Momentu batzuetan ezin duzu bizitza normala egin”

Iñaki Eizmendi lagun, hitzaldiak ematen zabilta herriz herri: seme-alabekin euskara zelan landu izango duzue hizpide...

Gure hitzaldien helburua honakoa da: guraso erdaldunei elebitasunaren abantaila guztiak azaltzea. Dazkaten zalantza edo beldurrekin laguntzea, azken batean. Kontua da Euskal Herrian ume asko daudela euskaraz ikasten dutenak, nahiz eta gurasoak erdaldunak izan. Gurasoengan zalantzak sortzen dira etxeko lanak-eta egiteko orduan ezin dutelako lagundu hizkuntza dela-eta. Horixe da hitzaldietan agertzen den beldurrik handiena. Hizkuntza menderatzen ez dutelako ezin izaten diete seme-alabei lagundu: eta horri erantzuna ematen saiatzen gara. Seme-alabei nola lagundu euskarazko etxeko lanak egiten, erdalduna izanda.

Telebistara bueltan, zer eman dizu hainbeste urtetan informatiboetako aurpegia izateak?

Kazetaritza izugarri gustatzen zait, jendea ere bai, eta hori ilargiaren aurpegi ezaguna da. Baina ilargiak aurpegi ezezaguna ere badauka, eta hori ez da hain atsegina. Alde batetik, oso momentu onak eman dizkit telebistan lana egiteak, baina, beste aldetik, pisu handi bat izan da. Momentu batzuetan ezin duzu bizitza normala egin: egiten duzun gauza bakoitzak kristoren eragina duelako. Oihartzun handia dauka egiten duzun guztiak. Eskaparate batean egiten duzu lana eta mundu guztiak uste du zu kritikatzeko edo goraiatzeko esku-bidea duela. Jaso dudak guztia ona izan da: audientzia kuota altuak lortu genituen eta txalotu egin ninduten. Baina, beste alde batetik, intimitate falta ere hor dago. Eta ikuspuntu horretatik, ez da bakarrik zure

intimitatea: zure ingurukoena ere bada. Izan ere, nonbaiteko jaietara joan eta iritsi bezain pronto batekin eta bestearekin gelditu eta zurekin daudenak aspertu egin daitezke egoera horren aurrean. Famaren ondorioz sortzen diren konpromisoak dira, baina, ezin zara mundu guztiarekin gelditu.

Teleberri saioan agertzen zinenean, ligo fama zeneukan, hala da?

Askotan esan izan da, eta egia da gainera. Baina argi laga nahi dut, egia izan arren, ez dela telebistan agertzen nintzelako. Informatiboetan agertu aurretik gehiago ligatzen nuen, *como hay dios*. Hala da. Baina telebistan agertuta, jende guztiak esaten du gehiago ligatzen dudala telebistan agertzen nintzelako: eta horrek meritua kentzen dit (brometan nabil).

Telebista alde batera laga eta Bilboko metroan zaude lanean...

Komunikazio eta Marketing arduraduna naiz. 300.000 pertsona pasatzen dira egunero metrotik, eta lehen ere antzeko kopuruak ikusten zuen gauero *Teleberrian*. Nire oraingo audientzia ere antzeko kopurua da. Ez da lan makala horiek guztiak komunikatzea. Bestalde, marketingean doktoregoa eginda daukat, eta hori da nire benetako bokazioa. Lehen albisteak "saltzen" nituen; orain, metroaren informazioa "saltzen" dut.

Jende asko ibiltzen da egunero metroan, zu zeu ere, erabiltzailea zara?

Bai, ia-ia egunero erabiltzen dut. Beste batzuetan, baina, autoa beharrezkoa daukat. Adibidez, Elgoibarrera joango naiz hitzaldiak ematera. Sopelan bizi naiz eta lanera, Bilbora metroz joaten banaiz ere, gero, ezin naiteke Elgoibarrera arte joan metroz; beraz, egun horretan, autoa hartuko dut. Baina, bestela, metro erabiltzailea naiz.

Telebista lagata eduki arren, bizitza normala berreskuratu dezakezula uste duzue? Zurekin ahaztu direla uste duzue?

Nik ikusten dudanaren arabera, ahaztu ez

dira ahaztu. Eta ez da prepotentea izateagatik. Baina, ia-ia hogei urte egunero telebistan agertu ondoren, nahiz eta egun gauero agertu ez, hor geratzen da: jendearen buruan. Gainera, beste faktore bat ere badago hori horrela izateko: ni ez naiz gauero informatiboetan agertzen dena, baina telebista eta irratia ez ditut betiko utzi. Hilean behin edo bi hilean behin erreportajeren bat egiten dut telebistarako, edo saioaren baten parte hartzen dut... azken batean, informatiboetatik joan nintzen, baina ez dut betiko moztu komunikabideekin lotzen nauen soka.

Zein da bizitza errazagoa, publikoa ala pribatua?

Biek dituzte alde onak eta txarrak, baina bizitza publikoa mundu guztiak aztertzen du, eta bere iritzia ematen du zure bizitza publikoari buruz. Eta sarritan, gehienetan, iritzi horrek ez dauka inolako oinarririk. Nik beti esaten dut gauza bat dela iritzia eta beste kontu bat, eta guztiz diferentea, irizpidea. Iritzia edozeren gainean eman daiteke; beste kontu bat da, irizpide bat edukitzeko datuak edukitzea. Informazio kontrajarria behar da horretarako. Kontua da, iritzia denok daukagula, baina, irizpidea, batzuk bakarrik.

Informatiboak orain urte batzuk laga zenuen, baina, bueltatuz gero, zein albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Orain momentuan eman nahiko nukeen albiste da Euskadi libre bat egin eta bertan bizitzeko aukera edukiko dugula. Dena da posible, baina horrelako arazo handi bati erantzuna edo irtenbidea emateko, denon lana behar-beharrezkoa da. Sarritan batzuei leporatzen zaie betiko kulpa edo errua; baina, otso asko eta asko daude beste larru batekin bizi direnak, eta horiek egia esateko aukera daukate. Egia esateko, eta azken batean, egoerari irtenbidea emateko.

Hitzaldia

Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendik seme-alaben hizkuntza jokabideen inguruan airtuko dira Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Martitzenean gaztelaraz, eta eguenean euskaraz: 19:00etan hasiko dira bi hitzaldiak.

Julio Ibarra kazetaria da, ingurune erdaldun batean bizi den guraso moduan, seme-alabek euskara ahalik eta gehien erabiltzeko egiten duen ahalegina azalduko du. Gainera, hainbat egoeratan zelan jokatzeko duen azalduko du, adibideak erabilita.

Iñaki Eizmendi, gizarte hezitzailea da, eta esperientzia handia dauka elebitasunaren inguruan era euskara sustatzeko egitasmoetan. Ideiak eta baliabideak emango ditu, seme-alabei, elebidunak izanda, eguneroko harremanetan euskararen aldeko aukera egiten laguntzeko.



“Ez dut betiko moztu komunikabideekin lotzen nauen soka”

KRISIRIK BADAGO?



Krisi ekonomikoa denon ahotan dabil aspaldian. Dirurik ez dagoela, daukagun diru apurra gorde egin behar dela garai txarragoak datozelako, hipotekari aurre ezin eginda dagoela jende mordo... krisiak herritarrengan eragina du, denda eta enpresetan bezala. Herritarrek hila-bete amaierara iristeko arazoak dituzte, antza, eta herriko dendek ere igartzen dute horren eragina. Hainbat sektoretan krisiak sortutako ondorioak aztertu nahi izan ditugu. Horretarako, herriko sektore batzuren irizkiak bildu ditugu:

Eduarne Burgaña

HAINBAT SEKTORE



IÑAKI GOÑI

Euskadiko Kutxako zuzendaria

Iñaki Goñik esandakoaren arabera, krisia egon badago: "Orain momentuan bizi duguna finantza krisia dago, eta jatorria Estatu Batuetan dago". Euskadiko Kutxaren Elgoibar-ko zuzendariaren esanetan, arrisku handiko inbertsio hipoteken ondorioz sortutakoa da: "Hipotekak hor daude, eta horiengan oinarrituta aktiboak ateratzen dituzte (bonoak, obligazioak...). Hipoteka horiek ez dira ordaintzen eta aktibo horiek balioa galtzen dute. Horren ondorioz inbertsio bankuari eragiten dio eta krisian sartzen da".

Horrekin lotuta, Espainian eraikuntza

"2009. urtea gogorra izango da, baina poliki-poliki egoerak hobera egingo du"

sektorea krisian dagoela aipatu du, eta horrek beste enpresa batzuei eragiten die: "Elektrotresna eta altzariak egiten dituzten enpresak, adibidez, krisian daude". Kontsumoa ere jaitsi egin dela dio Goñik, eta horrek automobilgintzari ere eragiten dio. Goñiren esanetan, beraz, hiru krisi hauek daude: finantzena, inmobiliariena, eta automobilgintza. "Guk ere igarri dugu. Azken batean, finantza krisia konfiantza krisia da. Bankuon arteko harremanak ez gabilta normal egiten. Krisiaren ondorioz konfiantza eza dago, eta merkatuak ez du funtzionatzen. Horregatik beldurra sortu da, eta bezeroak ere beldurtu egin dira", dio. Hala ere, lasaitasun mezua zabaldu nahi du Goñik: "Gu esaten ari gara lasai egoteko, uste dugulako buelta edukiko duela, baina gogorra etorri da. Estatu Batuetan sortu baina European ere eragiten ari da, globalizazioagatik". Gobernuak hartu dituzten neurriak begi onez ikusten ditu, "bestela sistema guztia pikutara joango litzateke". Horiek aurrera egiten lagunduko dutela uste du, baina kostatu egingo dela adierazi du.


Kontsumoa murriztu egin da, eta dirua

mugimenduan egotea oso garrantzitsua dela adierazi du, dena lotuta baitago. "Kontsumorik ez badago, ez da produzitzen, eta produzitzen ez bada, langabezia sortzen da, enplegua jaisten da... kate bat da", esan du.

Bezeroak kezkatuta daudela azaldu du, batez ere, hedabideetan agertu den informazioaren ondorioz, "eta beldurra dago". Hala ere, jendea lasaitu dela uste du, aurrezkiak bermatzeko fondoa badagoelako. Orain arte bermatzen zen kopurua 20.000 eurokoa zen, eta European kopuru horiek igo egin dituzte. European erabakiak koordinatuta hartu dituzte, eta bermea Espainian 100.000 euro-ra igo dute.

Iñaki Goñiren ustez, 2009. urtea gogorra izango da: "Gerrikoa estutu beharko dugu, baina pasatuko da. Denbora behar da, hau guztia ez da egun batetik bestera konponduko, baina egoerak poliki-poliki hobera egingo du".

Iñaki Goñik lasaitasun mezua luzatu nahi die herritarrei: "Jendeak konfiantza berreskuratzen duenean hasiko da berriz kontsumitzen, eta sistema bere onera etorriko da".



NEKANE ITURBE Aranburu bitxidenda


“Guk igartzen dugu krisia, hilabete amaieran batez ere”

Dirua falta denean, kapritxoak alde batera lagatzea izaten da normala. Aranburu bitxitegian hasi dira igartzen diru faltaren ondorioak: “Guk asko igartzen dugu krisia. Batez ere hilabete amaieran: Jendeak ez ditu kapritxoak erosten. Batzuk dirurik ez dutelako, eta beste batzuk, dutena gastatzeko beldur direlako. Izan ere, beldur asko ari dira sartzen, eta ez dakigu zer etorriko den...”, esan du Nekanek. “Hipotekak-eta asko igo dira, kalkuluak gaizki ateratu dira, eta orain itota daude. Hipoteka horiek jaitsiz gero, eta lan finkoa edukiz gero, gauzak bere onera bueltatuko direlakoan nago. Gu geu ere arduratuta gaude egoera ikusita. Ez dakigu zer egingo dugun. Ea hipotekak jasaten dituzten, edo Loteria on bat tokatzen zaigun Elgoibarren, egoerari buelta emateko”, dio.

MARI TERE ANSOLA Giauto

“Operazioak ixteko ahalegina handiagoa da”

Automobilgintza sasoirik onenean ez dagoen honetan, saltzeko lehen baino zailtasun handiagoak daudela nabarmendu du Giautok, General Motors taldeko autoak saltzen dituen enpresak. Opel autoen salmenta lehen bezalakoa da, Giautoren arabera. Chevrolet eta Saaben kasuan, berriz, salmentek gora egin dute. Era guztietara, krisiaren eragina igarri egiten da, Giautoko Mari Tere Ansolaren esanetan. “Operazioak ixteko orduan, ahalegina handiagoa da”. Izan ere, finantza erakundeen edo banketxeen bitartez kredituak lortzea zailtzen ari da. Hala ere, jendeak ez dio lehen baino auto merkeagoak erosteari ekin. “Auto handia erosi behar duenak handia erosten du”, uste du. Bigarren eskuko auto salmentek gora egin dute Giauton, eta arrazoia ez da krisia Ansolaren iritziz, arlo horretan ere oso espezializatuta daudela baino.



JOSE MARI ANDONEGI Claudio San Martin

“Krisi hau ez da aurrekoen modukoa”

Claudio San Martin enpresakoak ere autogintza sektorean daude, eta krisia nabari dutela azaldu dute: “Krisia egon badago, eta handia gainera. Eraikuntza sektorean aurretik zetorren krisia, baina gu autogintzan gaude eta hasi gara krisiaren eraginak igartzen: bezero batzuk %40 jaitsi dute eskaera”.

“Gainera, krisi hau ez da aurrekoen modukoa. Oraingoan faktore asko daude sartuta: finantza faktoreak, automobilen sektorea, eraikuntzarena... krisi latza dator oraingoan”, esan du Andonegik. “Aurre egiteko, politika alorrean egin behar da lana: lehendakariak eta Diputazioan dauden guztiek egin behar dute zerbait. Momentuz aurrera jarraitu genezake, baina denbora askorako bada, inork ezingo du jasan”, gaineratu du.

JOSE LUIS MARIN Eizagirre okindegia

“Jendeak ogi gutxiago erosten du”

Egunerokotasunean beharrezkotzat jotzen den lehengaia da ogia. Ia etxe guztietan jaten den elikagaia da, baina horrek ez du esan nahi ondo doanik sektorea: “Hil amaieran jendeak artisau ogiak alde batera utzi eta ogi normala erosten du. Artisau ogiak garestiagoak dira, eta horregatik, kalitate eta prezio baxuagoa duen ogia erosten dute askok”, azaldu du Eizagirre okindegiko arduradunak.

“Sei hilabete edo bost atzera joanez gero, ez zen hainbeste igartzen, baina orain bai. Gainera, tartean udako hilabeteak egon dira. Elgoibar barruko herrian izanda, asko kostako herrietara joaten da uda pasatzera, eta asko igartzen da. Baina, udazken garaian krisia igartzen da”.

“Jendeak ogi gutxiago erosten du. Etxe batean bi edo hiru barra erosten zituenak orain barra bat eta erdi. Bestalde, guk barra handia egiten dugu, eta beste okindegi batean ogi eta erdi erosten badute, gurean bakarrarekin nahikoa da. Horrekin ez dut esan nahi gure ogia hobe edo txarragoa denik, baina handiagoa da”, dio Marinek. Galdera bat ere planteatu du: “Krisiaren aurrean zer egin? Poltsikoari begiratu. Egunerokotasunean gastu asko edukitzen ditugu konturatu ere egin gabe, eta horiek kontrolatu egin behar dira. Bizi maila altua dauka, eta badirudi maila hori pasatu egin behar dugula”.





JUAN ANGEL BALBAS

Debegesako Zuzendari nagusia

Eskualdeko enpresen inguruko balorzioa egin du Debegesak eta erreminta-makina sektoreak "etxeko lanak ondo eginda" di-

"Erreminta-makinaren sektoreak etxeko lanak ondo eginda ditu"

tuela azaldu du: "Orain arte, Debabarreneko enpresetan krisiaren eragina ez da nabarmena izan. Momentu honetan, autogintzako enpresa batzuetan kezka sortzen hasi da, bezeroak prezioak jaisten hasi baitira, eskarien kopuruak ere jaitsi dira batzuetan...".

Balbasen esanetan, momentuz, krisiak beste sektore batzuei gehiago eragiten die industria sektoreari baino. "Langabezia zifrei begirada bat botatzen badiegu, Gipuzkoako langabezia tasa %7.7 koa dela ikusi daiteke eta gure eskualdean zifra hau baxuagoa da, %6.8koa, hain zuzen", esan du. Gure eskualdearen izaera industrialari esker, egungo "krisi" egoerari modu eraginkorragoan eran-

tzun diezaiokegu, bere iritziz, esperantza handiagoarekin.

"Erreminta-makinaren sektorea eredu-garria izaten ari da, gaur egunera arte, ongi egin ditu etxeko-lanak, esportazio garrantzitsuak aurrera eraman ditu sektoreak, egokipen teknologikoak, instalazio modernoak, pertsonal orekatuak...", uste du.

"Ez du esan nahi familiek euren erosteko gaitasunean krisiaren eragina sentituko ez dutenik, seguru asko kontsumoan eragina izaten jarraituko du, baina, industria sektorean ez da egoera gehiegi larrituko: 2009ko urte amaierara baldintza egokitan iristeko moduan izango gara", dio.



IRITZIA



KRISI BERRIA, KRISI ZAHARRA

Karmelo Urdangarin Ekonomian aditua

Krisiak, hau da, normala iruditzen zaigun egoeran aldaketa inportanteak ematea, gure sistema ekonomikoa den kapitalismo sozialdemokratako zati bat dira. Horrek esan nahi du erregularitasun batekin gertatzen direla.

Eta orain berriro agertu da, hamarkada bat baino gehiago gure ekonomia hazten egon eta gero. Eta gogortasun handiarekin eta aurrez sekula gertatu gabeko ezau-

garri negatiboekin azaldu da gainera. Gure sistema ekonomikoa herri-tarren anbizioan oinarrituta dago eta batzuk negozioren kudeaketan praktika zigorgarriak egin dituzte; inork saihestu ez dituenak. Finantza sistema osora zabaldu da joera, eta horrek mesfidantza sortu du, bai bankuen artean, bai bezeroen artean.

Enpresetan eskaera faltak, lana murrizteak eta lanik gabe daudenak

gero eta gehiago izateak, gure egunerokotasunean eragina edukiko du. Erakundeak ere ez dira salbatuko, gutxiago bilduko dute eta. Hala ere, ezin da aurreikusi bertako langileek hondamendia salatuko dutenik.

Sistemak egoerara moldatzeko ahalmena dauka, eta krisitik ikasiko du. Autoa zuzendu egingo da, eta ibilbideari jarraituko dio. Askok galduko dute lanik gabe geratuko direnek.




Madalatik Urasandira igotzeko bidean bi txapa handi daude: “Madalako errotondatik gora, Urasandirako bidean, bi txapa handi daude lurrian. Egur zati batzuekin lotzen dituzte lurrera, eta oso arriskutsu daude. Denbora mordoia daramate txapa zati horiek hor, eta ez dut ulertzen zertarako. Nire ustez txapa horiek kendu egin behar dituzte”.



Jende askok ez ditu errespetatzen San Pedroko arauak: “San Pedroko jolastokian ume nagusiak ibiltzen dira eta txikiei ez diete jolasten lagatzen. Bestalde, zelaian txakurrak sartzea debekatuta dago, baina askok ez dute arau hori errespetatzen. Horrez gain, aparkalekua badago, autorik ez pasatzeko barandila eta guzti. Baina, hala ere, jendeak elizaraino sartzen ditu autoak. Guztion hoberako, San Pedroko arauak betetzea eskatuko nioke jendeari. Mila esker”.

Madalako errotondako landareak luzeegi daude: “Debatik Elgoibarrerako norabidean, Madalako errotondara sartzerakoan, landareak luzeegi daude eta ez da ondo ikusten errotonda barruan zer dagoen. Askotan autorik ez dagoela ematen du, eta bat-batean bi edo hiru auto semaforoan geldituta daudela konturatzen zara. Dotore dago errotonda, baina nire ustez, landareak moztu egin behar dira gidarion segurtasuna bermatzeko.”.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

I. URTEURRENA



2007ko abuztuaren 7an hil zen
 82 urte zituela

JOSE MARIA ELORZA ZUBIAURRE
 eta
M^a KRISTINA GOIKOETXEA UNZUETA



2007ko urriaren 14an hil zen
 76 urte zituela

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen
 eta inoiz itzaltzen ez delako
 gogoan zaituztegu*

I. urteurreneko meza zapatuan, urriaren 18an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Urriak 25: gipuzkoarrok, denok Legutiora

Erabakitze eskubidearen aldeko kontsulta galarazi digute, baina gure eskubidea da eta hori aldarrikatu nahi dugu. Horregatik eta horretarako Legebiltzarrean aldeko apustua egin zuten alderdiek komunean antolatuta dugun ekitaldiaren berri eman nahi dizugu. Euskaldunak eta abertzaleak garen aldetik, ezin gara ezer egin gabe geratu. Parte hartu behar dugu, hitzak osatuz. Hitzarmenaren aldeko sinadura bilketa ere egingo da, jasotakoak Europara bidaltzeko.

“Hitza hitz” lelopean, euskal herritarrei dei egiten zaie, Gernika eta Gasteiz arteko toki zehatzetan batzera. Subjektu politikoaren definizioa, debekatutako galdera horientzako proposatzen diren erantzunak, fisikoki, lurraldean bertan kokatzean datza ekitaldi-ekimena.

Parte hartu nahi duten herritarrek Euskal Herria, bakea, bai eta erabakia hitzak osatuko dituzte.

Topaguneak Gernikan, Zornotzan, Durangon, Urkiolan, Legutian eta Gasteizen izango dira.

Erabakitze eskubidea aldarrika ezazu! Gurekin etorri! Urriaren 25ean Legutian elkartuko gara.

EAJ, EA, EB, Aralar

Eskerrik asko, Gotzon

Elgoibarko Ezker Abertzaleak bere samina azaldu nahi du Gotzon Garateren heriotza dela-eta. Bide batez, doluminak helarazi nahi dizkio bere familiari. Gotzon Garate euskaltzale amorratua izan da, ekarpen handiak egin

ditu gure hizkuntza nazionalaren alde: filologia ikasketak martxan jarri Deustuko Unibertsitatean, ahozko euskara bildu, liburuak idatzi...

Ezin dugu aipatu gabe utzi marxismoaren inguruan Gotzonek egin zituen ekarpenak: berak idatzi zuen marxismoari buruzko euskarazko lehen saiakera sakona.

Baina horiez gain, Gotzon Euskal Herriko independentziaren alde mintzatu eta idatzi izan du beti. Interes handiz irakurri izan ditugu bere artikulua egunkarietan, idazkera ulerterraza erabiltzen zuen berak eta oso argi azaltzen zigun Euskal Herriak, munduko beste herrien antzera, independentzian zuela irtenbiderik egokiena; estatuaren ukapenaren aurrean borrokaren zilegitasuna defenditu zuen hizkuntza xume eta errazean.

Eta hori eskertzekoa da, ideiak eta helburuak hain merke saltzen diren garai honetan. Elgoibarko Ezker Abertzaleak beti izango du gogoan.

Elgoibarko ezker abertzalea

Urriak 25, Independentzia eguna

Urriaren 25ean Euskal Herriko gazte guztiok dugu elkargunea Hernanin. Bi estatu zapaltzaileen inposaketekin bat egiten ez dugulako Independentzia Eguna ospatzeko aukera paregabea da. Frantziar errepublikak eta Espainiako konstituzioak ezartzen diguten kaiola apurtzera goaz, zazpi lurraldez osaturiko Euskal Herri berri bat pizteko asmoz.

Itxurak eman nahi dituzten arren, sasi-politikari gorbatahunek euren onurarako etekinak baino ez dituzte bilatzen: Agerikoa da etxebizitza eskubidea ez dela existitzen, eurek

etxe bat baino gehiago izaten dute eta ez die axola gazteok kale gorrian gelditzen bagara; hezkuntza sistema kapitalistaren menpe dago; natura ez da errespetatzen, (superportuak, errausketak eta gainera mendiak AHT batez zulatu nahi dituzte); gure hizkuntza ere etengabe zapaltzen dute eta argazki bat ateratzeko “pixka bat es mucho” kanpaina lotsagarria ateratzen dute. Horrekin batera, euren esku atxilotuak, jipoituak, torturatuak, ilegaltatuak, espetxeratuak eta amaierarik gabeko neurri basatiak erabiltzen dituzte gurekin amaitzeko, komunikabideetan terroristak garrela zabalzen duten bitartean.

Bi estatu horiek independentziaren alde borrokatzen dugunok amaitzeko edozer egiteko prest daude baina, ez digute ziria sartuko eta tinko jarraituko dugu borrokan, Independentzia lortu arte. Zuen negoziok amaitu egin dira! Diru artean amets goxoak izateari utziko diozue, zuen amesgaizto bihurtuko gara eta!

Beraz, urriaren 25erako deialdia zabalitzen dugu gazte independentistek. Jai giroan Independentzia egun bat irudikatuko dugu Hernanin, eta egun osoko egitaraua izango dugu: goizean hasita kale animazioa, txupinazioa, bertsopoteoa, sagardotegia, sokatiraren finala, ekitaldia, kontzertuak... eta autobusean joateko aukera.

Zuen zalantzak guztiak argitzeko, egun honen aurkezpena egingo da larunbat honetan: urriaren 18an, 20.30ean Madalako parkean. Animatu eta etorri!

Zapaltzeile guztien gainetik, etorkizuna Independentzia!

Elgoibarko gazte independentistak

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Miriam Garcia

"Guztiok lehenik haur izan gara, baina inor gutxi oroitzen da horretaz". Gogoratzen al zara nolakoa zen mundua iragana edukitzeko adinik ez geneukanean?

Ez dakit hobe edo txarragoa zen, baina ziur nago kanpoan handien mundu handia gaur egun bezain gaixo zegoela. Mundua umeen ikuspuntutik ikusten berrikastea garrantzitsua dela konturatu naiz. Luisa eta Carla mahaikideak dira. Luisak 8 urte dauka, Carlak 12. Luisa banbuz egindako etxe batean bizi da eta ez dauka oinetakorik hotza egiten duenerako; Carlak kolore ezberdinetako boligrafoak erabiltzen ditu, eta motorra dauka. Luisak ez du politikari buruz ezer ulertzen baina bere familia MASen aldekoa da; Carlak ere ez, baina bere familia Podemosen aldekoa da. Luisa eta Carla ez dira konturatzen baina zatitutako Herrialde baten adibide dira. Luisa eta Carla ez dira konturatzen eta jolastea da beraien arduraren haundiena. Baina korridoreetatik korrika ari diren bitartean, kanpoan, Herrialdea zabuka dabil.

“Mundua umeen ikuspuntutik ikusten berrikastea garrantzitsua da”

Azken aste honetan Bolivian gertatzen ari diren istiluak areagotu egin dira. Hilketak eta blokeoak izan dira eta gure herria guztiz isolatuta gelditu da egun batzuz. Baina eskolan umeen kantak egunero bezain bizi entzuten dira. Inozentzia umeak nagusien munduko gaitzetik babesten dituen kristalezko koraza bat da. Nik nire Printze txikiek denbora luzerako elefanteak irensten dituzten sugeak marratzen jarrai dezatela espero dut. Orain dela gutxi Lizeth-ek konbentzimendu osoz zera esan zidan: "Eta han, itsasoaren beste aldean, itsasneskak bizi dira, baietz?". Eta nik baietz.



Eva Garcia

Noski, akordatzen naiz nolakoa zen mundua etxeko mahai azpian baserriko bat marratzen geneanean, eta mundu bukaera behin batean tontodromo estaltzen zuten sasietan hasten zenean. Denbora poliki-poliki pasatzen zen, eta xehetasun txiki-netan unibertso oso bat aurkitzen geneuen.

Bolivia, Latinoamerikako herri behartsuena, politikoki paralizatuta dago barruko ezberdintasun erraldoieigaitik, eta, batez ere, lurra eta energia-baliabideak kontrolatzeko borrokarengaitik. Gabezia handi-enean, umea izatea ez da erraza.

Orain dela hilabete batzuk, egunero eskolara joateko bost kilometro ibiltzen zituen hamabi urteko mutiltxo bat ere ezagutu nuen Bolivian. Arratsaldeetan Sucreko Plaza Nagusian zapatak garbitzen zituen. Mandarina bat banatzen genuen bitartean, Boliviako haurren heziketaren garrantziari buruz hitzegin zidan. Futbolaz ere hitzegin genuen. Quéchua zen bere ama hizkuntza, baina bere aho txikian atzerriko hitz asko agertzen ziren nohizbenka, eta euskaraz zekizkien hitz guztiak ere esan zizkidan. Agurtu baino lehen, bidaiarako aholku batzuk eman zizkidan, eta haren esan guztiak bete nituen.

“Gabezia handi-enean, umea izatea ez da erraza”

Bere kontzientzia, ezaguera eta argitasunak harrিতa laga ninduten. Bere bizi baldintzak ez ziren errezak, baina bere hautamena bizi-tzari buruz ikastea izan zen. Nire laguntxo txikiak ume izaten jarrai dezala ere nahi dut, bere begirada umilarekin nagusiei eskarmentuak emanez.

Hala ere, bukaeran, itsasoaren beste aldean bizi diren zure itsasnesken kantuek erakarrita, denok nagusien munduan topeka amaitzen dugu.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Urteko fabrikatzaile onenaren saria jaso du Ideko-IK4 zentro teknologikoak

Berrikuntzarekin duen etengabeko konpromisoa hartu du kontuan epaimahaiak

Alemanian Dusseldorf hirian izan zen urriaren 8an “Strategic Manufacturing awards 2008” sariketa, eta bertan, Elgoibarko Ideko-IK4 zentro teknologikoak lehenengo bi sari eskuratu zituen. Batetik, urteko fabrikatzaile onenari (*The manufacturer of the year*) ematen dioten saria jaso zuen, eta, bestetik, *Green Manufacturing* kategoriako lehen saria ere eman zioten. Arriaga auzoko teknologia zentroari, Microsoft moduko enpresa erraldoiaren aurretik.

Kompetentzia eta prestigioa

Besteak beste, berrikuntzarekin duen etengabeko konpromisoa hartu dute kontuan epaimahaiko kideek, urteko fabrikatzaile onenaren sari nagusia Ideko-IK4 zentro teknologikoari emateko. Mundu osoko ehun enpresa garrantzitsu zeuden saria irabazteko lehia, horietako asko oso garrantzitsuak eta ezagunak: Microsoft, Hewlett-Packard, Bombardier, SAP, Danfoss, Procter&Gamble edo Baxter, baztertzuk aipatzearren.



Ingurumenarekin konpromisoa

Ingurugiroarengan inpaktu edo eragin baxua duten fabrikazioak saritzen dituzten kategorian ere lehen saria eskuratu du. Magnesioa, grafitoa edota karbono/beira-zuntz aleazioak modu segu-

ru eta ekologikoan mekanizatzekeko prozesu berritzaileak aurkeztu zuen Ideko-IK4k *Green Manufacturing* izeneko kategorian.

Elgoibartarrak, beraz, bi sari handirekin itzuli ziren etxera Alemania aldetik.

Euskarazko hogeita hiru komunikabidek bat egin dute “iragarkilaburrak.com” atari digitalarekin



Ekainean, tokian tokiko hainbat herri aldizkarik, egunkarik eta agerrik, euskarazko iragarki laburren web guneak sortu zituzten, bakoitzak bere herrian. Azken hilabeteotan proiektuarekin bat egin duten kide berriekin batera, guztiak batzen dituen webgune nagusia aurkeztu zuten urriaren 10ean Donostian: www.iragarkilaburrak.com. Guztira 23 hedabidek egin dute bat proiektuarekin, tartean BARREN astekariak.

Egunero-egunero milaka bisita izaten ditu atari digitalak, eta astero 100.000 aleko zabalkundea du euskarazko iragarki laburren paperezko edizioak.

Berria egunkariaren inguruko Bertako Hedabideek garatu dute proiektua, baina elkarlanean egindako lana izan dela azpimarratu zuten.

Protagonista **Ambolo lora**



Ego-Tokiko bazkideek Ambolo lora diseckatu egin dute, eta, dagoeneko, elkartean daukate. Irailaren 12an hil zen Ambolo, eta Donostiako taxidermista batek diseckatu du. Bazkideak gustura dauke Amboloren itxura berriarekin. Aurreantzean, kristalezko bitrina baten barruan egongo da Ambolo. Ez du hitzik egingo, baina elkarteko ikur izaten jarraituko du betirako. Hala ere, beste lora baten bila hasi direla adierazi dute.

Berbia **Lapurretak**

San Bartolome kaleko Garate eta G-M jantzidendetan lapurretan egin zuten eguaztenean. Bi emakumek, ama-alabak, hainbat erropa ostu zuten, ustez. Dendariak lapurren atzetik irten ziren, eta kalean harrapatu zituzten. Ordurako Udaltzainak ere abisua jasota zeukaten, eta jantzi guztiak berreskuratu zituzten. Udaltzaingoak esandakoaren arabera, lapurreten kopurua asko handitu da azken hilabeteotan, eta etxetik irtendakoan atea giltzaz ixteko gomendioa eman dute.

Irudia **Kilo laurdeneko perretxikoa**

Miguel Esnaolak kilo laurden pasatxoko perretxikoa topatu zuen martitzenean. Perretxiko gutxi dagoela diote adituek, baina elgoibartar honek pieza ederra batu du Elgoibar inguruan. Hori bai, ez digu esan non, hori sekretua baita. Perretxiko mordoxka bat batu zituen egun horretan eta tortilan jango zituela kontatu zigun.



Haizea Emakume taldearen batzar nagusia

Datorren urriaren 24an izango da Haizea Emakume taldearen batzar nagusia Kultur Etxean, gaueko 21:30ean. Horrez gain, elkartek hainbat ekintza antolatu ditu ikasturte berrirako: urriaren 22an garapen pertsonalari buruzko ikastaroa hasiko da. Urriaren 27an gure inguruko artea ezagutzeko ikastaroa egingo dute, eta 28an arratsalde literarioen beste saio bat. Yoga eta sevillana ikastaroak ere antolatu dituzte. Informazio gehiago 943 743 206 telefonoan.

1942ko kintoen bazkaria

Azaroaren 22an bazkaria egingo dute 1942ko kintoek, Sigma jantzetxean. Interesatuak 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0007 20 0071046631. Izena emateko azken eguna: urriak 18.

Errosario kaleko jaietako zozketa

Errosario kaleko jaietan egindako zozketaren zenbaki sarituak hauek dira: lehenengo saria 234 (erreserbakoa, 2.476), bigarren saria 947 (erreserbakoa, 1.687) eta hirugarren saria 2.484 (erreserbakoa, 1.749).

Errusiako telebistaren bisita

Errusiako bi telebista kate, 5 Chanell eta RTR, IMHn eta Danobaten izan dira aste honetan erreportaje baterako irudiak grabatzen. Espainiako industria eta teknologiaren egoeraren berri eman nahi dute euren herrialdean, eta gure herria aukeratu dute.



Ezinduentzako gunean aparkatzeagatik gida baimeneko bi puntu kentzea aztertuko du Espainiako Gobernuak.

Errespetatzen dituzu ezinduentzako aparkalekuak?



Manuel Vazquez
54 urte, muntatzailea

Bai, beti. Autoa ondo aparkatzen duten horietakoa naiz, ez dut sekula debekatutako lekuetan lagatzen. Herri erdigunean bizi naiz, eta hemen inguruan lekurik ez badago, auzoetara joaten naiz aparkatzera. Batzutan kostatzen zait, baina beti topatzen dut lekua.



Ventura Fernandez
42 urte, arrantzalea

Bai, baina jende asko dago ezinduentzako lekuak errespetatzen ez dituenak. Gaur bertan, ni bueltaka ibili naiz autoa aparkatu nahian, eta bi auto ikusi ditut ezinduentzako lekuan. Ondo iruditzen zait, gaizki aparkatzeagatik, gida baimeneko puntuak kentzea.



Iker Araujo
30 urte, fresadorea

Bai. Batzutan laga izan dut autoa ezinduentzako lekuan, baina enkargu azkarren bat egiteko bakarrik. Bestela, autoa ondo aparkatzen ahalegintzen naiz. Hala ere, gaizki aparkatzen duen jende asko dago, eta bi puntu baino gehiago kendu beharko lituzkete.



Juan Jose Bastarrika
51 urte, gozogilea

Bai, ahalegintzen naiz behintzat. Nik uste dut jende askok ez dituela errespetatzen ezinduentzako lekuak, espaloiak eta beste gauza asko. Auto gehiegi dago eta aparkatzeko leku gutxi. Dena dela, ondo ikusten dut gida baimenetik puntuak kentzea.

I. URTEURRENA

AGUSTIN ARTOLA BERGARETXE



2007ko urriaren 19an hil zen, 69 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

MARIANO ELUSTONDO AIZPIRI



2007ko urriaren 16an hil zen, 95 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA**Arrasateko bi talde, Mallabiko bat eta Abadiñoiko bat arituko dira Danbakako hirugarren edizioiko lehen kontzertuan**

Azkenean heldu da Danbaka musika lehiaketako hirugarren edizioaren hasiera. Danbakak dauzkan berezitasunei eutsita, edizio honetan ere kontzertu bakoitzean ahalik eta musika estilo gehien batzen saiatu dira antolatzaileak. Horren helburua da musika estilo zehatz bat entzuten duten zaleek bestelakoak ere entzuteko aukera izatea.

Hona hemen gaurko proposamena: ingelesez abesteko gaitasun handia daukan Mery May Arrasateko bakarlaria, Damudot Mallabiko heavy-thrash taldea, The 5 Twisters Arrasateko garage-rock talde berteranoa eta Abadiñoiko Ymotek thrash-death-metal indartsua.



Damudot (Mallabia)
Damudot Jonek, Gribik eta Polutok osatzen dute gaur egun. Taldeak dagoeneko zazpi urteko ibilbidea dauka, eta kontzertu ugari egin ditu. Gerora, hainbat bildumatan esku hartu du. Euskaraz egindako heavy-thrasha egiten du.



Mery may (Arrasate)
Maria Fagan oso txikitik erabakita zeukan musikaria izan gura zuela. Hala, oso gaztetotan gitarra jotzen hasi zen eta azken urteotan bakarlari moduan kontzertuak ematen hasi da. Pop-rocka egiten du, AEBetako folkaren kutsu handia dauka.



The 5 twisters (Arrasate)
Jokin, Yago, Iose, Goro eta Beni 2005ean hasi ziren taldearekin buru-belarri eta orduetik hona kontzertu ugari egin dituzte. Arrasatear horiek garage-rocka eta punk-rocka egiten dute, gaztelaraz eta ingelesez abestuta.



Ymotek (Abadiño)
Abadiñoiko boskote hori 2006an sortu zuten David, Javi, Rober, Iban eta Asierrek. Taldeak bilakaera esanguratsua izan du. Euren eskaintza thrash-death-metalaren alorrean koka dezakegu, eta taldekideek kantutak ingelesez abesten dituzte.

KONTZERTUA

Gaur, barixakua. 22:30. Elgetako Espaloia. 5 euro (Gazte kutxa, 3 euro)

www.danbaka.com

DANBAKA))))

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOI ENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



Boliviarrak Elgoibarren

Santa Cruzeko egoerarekin kezkatuta

Azken urteotan boliviarrak mordera etorri da gurera. Otsaileko datuen arabera, Elgoibarren erroldatutako 542 lagunek ez dute Espainiako nazionalitateirik, eta horietatik 138 Boliviakoak dira (%25,5). Elgoibarko boliviarrak gehienak Santa Cruzekoak dira. Departamendu horretan askok ez dituzte begi onez ikusi Evo Morales presidente indigenak proposatutako aldaketak. Izan ere, Boliviak kontraste handiak ditu. Hango gorabeherak Elgoibarren zelan bizi dituzten azaldu nahi izan du Didiana Suarezek. Pandoko departamenduan, Santa Cruzetik gertu, esaterako, istilu larriak gertatu berri dira. Didianaren iritziz, egoera zaila da, eta gerra zibilaren atarian egon litezke. Hori dela eta, kezkarik bizi dira, hemen lan egin ahal izateko senide batzuk han laga behar izan dituztelako.



Didiana Santa Cruzkoa da eta Elgoibarren urte bi daramatza.

Didiana Suarezek bi urte eta hiru hila bete daramatza Elgoibarren. Lehenago Madrilen ere egon zen, baina hango bizimodua bestelakoa zen. Santa Cruzekoa da, Elgoibarren dauden boliviarrak gehien moduan. Ekonomikoki eskualderik oparoena da. “Han denetik dago. Era guztietako tokiak daude: mendiak, lautadak, ganaderitzarako leku aproposak, nekazaritzarako...”, azaldu du. Indigenak oro har beste paraje deserosago batzuetan bizi dira, leku hotz eta menditsuetan. Askok eta askok Santa Cruz, Beni edo Pandora jotzen dute, pobreak bultzatuta.

Evo Morales indigenak hauteskundeak irabazi zituzten etorri zen Didiana. “Aurretik ikusten genuen garai zailak etorriko zirela. Beste ideia batzuekin zetorren Morales. Orain ari da ideia horiek praktikan jartzen. Eta bagenekien Santa Cruzeko bizilagunontzat sekulako eragina izango zuela”, dio. Bere esanetan, gobernu aldaketak emigrazioa areagotu zuen Santa Cruzen.

Eskualdearen autonomia eskatzen dutenekin bat dator Didiana. “Santa Cruzek asko ekoizten du, eta herrialde guztiarentzat banatzen du. Eskualde bakoitzak bere jendearentzako onena nahi du. Horrez gain, presidentek Estatu Batuekin ez du harreman onik eta Estatu Batuek eragin handia izan dute beti gobernuengan”, dio. Beste eskualdeek autonomiaren eragina igarriko lukete, bere iritziz.

Lehen ere zaila zen Boliviaren egoera. Ustelkeria eta krisialdiak beti ezagutu ditu Didianak. “Aurreko gobernuen enpresak pribatizatu zituzten eta Morales jaunak berreskuratzeari ekin dio. Horregatik egoera zaildu egin da. Jendea bota eta berriz hartu dute: baina orain hartzen duten jendea beste eskualdeetako da, ez Santa Cruz bertakoa”.



Indigenak gobernuan

“Bolivian jende gehiena indigena da”, Didianaren esanetan. Moralesek indigenen interesak defendatzeari ekin dio. Mundua ikusteko eta ulertzeko modu guztiz ezberdina da. Bi errealitateek talka egiten dute. “Gerra zibila etorri liteke”, uste du. “Indigenak Santa Cruz menderatzen ari dira”.

“Han gelditu direnengatik kezka daukagu”, dio. Senarrarekin eta seme-alabekin Elgoibarren bizi da Didiana, baina gurasoak eta anai-arrebak han ditu. “Lanera ere ezin dute joan manifestazioak direnean. Prezioek gora egin dute, eta oso zaila da bizimodua”. Bolivian bizitza garestitu egin dela dio Didianak: “Arroz kilo batek hemen euroa balio du, eta han hogei boliviano”. Euro bat ia hogei boli-

viano dira. “Ekonomikoki bizitza zaila da hangoa”.

Hori dela eta, tentu handiz jarraitzen dituzte Boliviako gorabeherak eta horren inguruan berba egiten dute euren artean. Elgoibarraren bizi diren Boliviarr gehienak Santa Cruz aldekoak dira. Izan ere, katean etorri dira: Lehenago Didianaren koinata etorri zen inguruko norbaiten bidez; gero, Didiana bera; ondoren bere senide batzuk eta senideen senideak.

Didianaren garaian etorritakoak papergabe etortzen ziren. Orain, berriz, gauzak aldatu dira eta Boliviatik ezinezkoa da paperik gabeko hona etortzea. Pixkanaka euren egoera erregularizatzen ari dira, baina hainbat zailasuni egin behar diote aurre.

Elgoibarko boliviarr gehienak Santa Cruz aldekoak dira



Boliviako mapa

Indigenen eta kriolloen interesen arteko talka

Ameriketako lehen presidente indigena da Evo Morales. Movimiento Al Socialismo (MAS) alderdiaren hautagaia agintaldira heldu eta hidrokarburoak nazionalizatzeko beharra nabarmendu zuen. Dirua gutxi batzuen eskuetan gelditu barik, behar sozialetarako erabili nahi du Moralesek, nazionalizazioen bidez. Neurri sozial batzuk jarri ditu martxan: besteak beste, *Renta Dignidad* izenekoa, bizitza guztia lan egin arren, pentsiorik ez duten 60 urtetik gorako bizilagunentzako errenta.

Santa Cruz Boliviako hiriburu ekonomikoa da. Hango kriolloek ekonomia menderatu izan dute orain arte eta gobernu berriaren neurriek euren interesekin talka egiten dute. Horregatik ekin diote autonomia eskatzeari.

Orain aste batzuk egindako herri galdeketa Evo Morales berrindartuta azaldu zen, Bolivia osoko herritarrek bere proiektuarekin bat egin dute-eta. Baina Santa Cruz, Pando, Tarija eta Beni departamentuetan gobernuaren kontrako sektoreek ere indar handia erakutsi dute eta ez dute autonomiaren bidea alde batera laga nahi.

Gure berbak

GOTZON GARATE GOGOAN ETA BIHOTZEAN

Aste honetako zutabea, Gotzon, zuri omenaldi xume bat egiteko aprobeztatu nahi nuke. Horretarako, zure atsotitzen liburu zoragarria jo dut (beste behin ere!), bitxien bila. Ezagutzen zintudan neurrian behintzat, primeran datoz zuk bazter guztietako baserrietan bildutako atsotitzak. zure izaera eta jokaera deskribatzeko.

ZINTZOA

- ♦Zintzoa, beti pozik.
- ♦Euskalduna, berbakoa.

GOXOA

- ♦Hitz goxoak ate guztiak zabaldu.

EUSKALTZALEA

- ♦Euskara, bestela ez gara.
- ♦Euskara plazara, bestela galduak gara.

HIZKUNTZALARIA

- ♦Hitz da gizona.

BIDAIAARIA

- ♦Euskal Herritik ostean zer ikusi asko da.

BASERRIZALEA

- ♦Baserria euskeraren gordelekua.

JAKINZALEA

- ♦Gizona ez da ogiz bakarrik bizi.

LANGILEA

- ♦Gizona lanerako eta txoria hegan egiteko.

EMANKORRA

- ♦Gizonetan eta arboletan batzuek bakarrik fruturik ematen.

FEDEDUNA

- ♦Euskaldun, fededun.
- ♦Jainkoak digula hillean eta bizian argia!

Hara ba, Gotzon, une triste honetan, zuretzako atsotiz egokia azken hau: "Bizian" eman dizu, bai, argia eta distira Jainkoak, eta "hillean" ere halaxe izango ahal da.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1960

Aste honetako erretratu zaharra Joseba Panizok ekarri digu. Bere familiako argazkia da, Bilbon bizi ziren garaian ateratakoa. Gurasoak eta anai-arreba guztiak ageri dira, Bilboko etxean. Ikus ditzagun familia horretako kideak.

Ezkerretik eskumara: Roberto Panizo, M^a Nieves Monasterio (†) eta Carlos Panizo (†) gurasoak, Carlos Panizo, Joseba Panizo eta Miren Edurne Panizo.



Oharra: Joan zen asteko alean Eulogio Etxeberria hilda zegoela jarri genuen, baina oraindik bizirik dago. Barkatu hankasartzea.

ESKERTZA

MATILDE LEJARDI GABILONDO



2008ko urriaren 9an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Josu Uriarte markinarrak irabazi du San Pedrora igoera

Bigarren sailkatuari minutu erdiko alde atera dio



Nagusitasun osoz –minutu erdiko alde atera zion bigarren sailkatuari– irabazi zuen Josu Uriarte markinarrak San Pedrora Txirringulari igoera joan den domekan.

Irabazleak denbora ona egin zuen arren (13:50), Larizen errekorrak (13:21) bere horretan jarraituko du, beste urtebetean gutxienez.

Gonzalez hirugarren

Aurten, joan zen urtean baino lasterkari gehiago izan ziren, 39 guztira eta tartean,

neska bakarra. Elgoibartarra gainera: Ainhoa Lendinez. 26. postuan sailkatu zen.

Helmugaratu zen lehen elgoibartarra Iban Gonzalez izan zen. 14 minutu eta 30 segundo behar izan zituen lau kilometro malda gogorra igotzeko: sailkapen nagusian, hirugarren postua eskuratu zuen.

Urtero bezala, makina bat ikusle egon zen bide bazterrean animoak ematen.

Sailkapen osoa eta argazkiak www.elgoibarren.net helbidean ikusteko aukera dago.

Eskola Kirola programaren denboraldi berria 240 umek parte hartuko dute



Joan zen asteburuan hasi zen Eskola Kirola programaren aurtengo kanpaina. Bertan, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Murrikuko 240 ume inguruk hartuko dute parte. Alebin mailakoak 8ko futbolarekin hasiko dira eta saskibaloiarekin benjamin mailakoak.

Bestalde, Kirola Euskaraz egitasmoarekin jarraituz, Udalak Eskola Kirolean diharduten haurren gurasoentzako materiala banatuko du, eta kirolean euskararen erabilera sustatzeko aholkuak eman.

EMAITZAK

FUTBOLA

Arenas **0** – Elgoibar **2** (Pref.)
 Arizmendi **2** – Elgoibar **1** (Neskak)
 Elgoibar **3** – Antzuola **0** (1. erregi.)
 Elgoibar **1** – Aretxabaleta **0** (Jub.)
 Beasain **1** – Elgoibar **0** (Kad.)
 Elgoibar **7** – Eibartarrak **0** (Inf.)
 Elgoibar **3** – Bergara **0** (Txikiak)

EUSKADIKO HIRU TXIRLO TXAPELKETA

Juan Luis Rodriguez(Asola Berri)..... 7 bolo
 Bittor Astigarraga (Asola Berri)..... 5 bolo
 Antolin Arizmendiarieta (Iruzubieta)..... 5 bolo
 Joseba Lazkano (Lastur).....5 bolo
 Antonio Antxustegi (Iruzubieta)..... 5 bolo
 Javier Osoro (San Migel) 4 bolo

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. **0** – Izkepot **4** (Nazional B)
 Aloña Mendi **3** – Elgoibar **4** (Jub.)

SASKIBALOAIA

Cafes Aitona **68** – Gabi jatetxea **98** (Senior probin.)

ESKUBALOAIA

Cometel **12** – Aiala Zarautz **31** (Jub. nesk.)
 IMH **21** – Aiala **18** (Kad. nesk.)
 Alkorta **27** – Arrasate **16** (Sen. mut.)
 Pneumax **17** – Ereintza **30** (Kad. mut.)
 Urnieta **9** – Ikus **9** (Kad. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 19
 11:00 Elgoibar – Eskoriatza (Jub.)

ESKU PILOTA Gipuzkoako txapelketa

(Ikastolako frontoian)
Barixakua, 17
 22:00 Lagunak – Lizardi Igeldo (Nag. 2. maila)
 Lagunak – Zazpi iturri (Nag. 1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18
 12:30 Elgoibar – Irintxa (Inf.)
 16:30 Elgoibar– Cultural de Durango (Pref.)
Domekia, 19
 12:00 Elgoibar – Arrasate (Kad.)

SASKIBALOAIA (Kiroldegian)

Domeka, 19
 12:30 Gabi jatetxea – Krafft Atco. Sansebastian (Sen.probi.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 18
 09:00 Aterpe – Casa Astigarraga (Inf.nesk.)
 10:30 Caldereria Lili – Aloña (Inf.nesk.)
 12:00 Bankoa – Bergara (Inf.mut.)
 16:00 IMH – Basauri (Kad.nesk.)
 17:30 Cometel – Basauri (Jub.nesk.)
 19:00 Tecnifuelle Elg. – Zuazo (Sen.nesk.)

ESKU PILOTA

Zapatua, 18
 12:00 Lagunak – Huarte (Kad.)

UBANE UZIN

Errabal Jazz
jaialdiko antolatzailea

Errabal Jazz jaialdia Elgoibarren hasiko da gaur, barixakua. Yuri Gagarin Trio Antonio Vegarekin batera izango da Herriko Antzokian, 22:15etik aurrera. Ubane Uzin antolatzailea pozik dago kalitatezko jazza bailarako herrietara gerturatzeko ahaleginarekin.

“Guk nahi genuen programaketa lortu dugu aurten”

Zein izan da jazz jaialdiaren orain arteko harrera?

Beti izan da ona. Gero eta publiko gehiago dago eta kanpoko jendea ere etortzen da. Lau urtetan apustua egin behar genuen, zerbait ezberdina. Horregatik Elgoibarren izango den Yuri Gagarin Trio eta Antonio Vega eta The Commitments apustuak dira.

Jaialdia zergatik da ibiltaria?

Gu soraluzearrak gara, eta badakigu Soraluzeko jende asko, orain etortzen dena emanaldia ikustera, ziklo honetan hasieran ez zela mugitzen kanpora. Orain, jaialdia datorrenean, programaketa begiratzen eta hona edo bestera joaten dira. Publikoak sortze aldera egiten dugu: azken batean, ahalik eta leku gehienetara ailegatzeko. Musika hau leku guztietara iritsi daiteke, herri bakoitza bere aretoaren eta baliabideen neurrian.

Aurtengo programazioa zelakoa izango da?

Yuri Gagarin Trio oso hirukote puntero eta ona da. Vegaren kolaborazioarekin toke ezberdina ematen dio: Jazza entzuteko aukera eta Radio Futuraren abestiak ere; jazz hutsa entzutea ohituta ez dagoen publikoa erakarri nahi izan dugu. Elgetara The Commitments etorriko da, aurten apustu fuertea egin dugu-eta: bakarrik emanaldi hori eskaintzera etorriko dira Euskal Herrira. Luxua da. Soraluzen, berriz, eibartar bat izango dugu, jazza lau ahotsekin ematen. Mutrikun, lau emakumeren emanaldia izango da.

Zelakoak izan dira antolaketa lanak?

Nekeza izan da. Gauza bereziak ekartzen dituzunean, azken momentura arte egoten zara itxi ezinda. Guk uste dugu merezi duela.

Programaketarekin gustura, orduan.

Aurten guk nahi genuen programaketa lortu dugu. Apustu handia da, baina kalitatezkoa. Dena irten zaigu ondo.

Nabarmentzeko zerbait?

Gauzek ez dute zertan hiriburuetan zentralizatuta egon. Horrekin nekatuta gaude; Donostia, Bilbo, jaialdi handiak... eta diru pila bat. Hor sartzen ez denak ez du lekurik? Erdibideko gauzak egin daitezke eta horregatik ez dira txarragoak. Kulturaliki gure herriak nahiko hutsik daude. Herria aldarrikatzen dugu. Gure ingururako ekimena da.



Expresion Sonora taldeak Eibarko Coliseo antzokian joko du

Kontzertua urriaren 25ean izango da, 19:00etan

Expresion Sonora taldea gazte jendearen artean, akaso, ez da entzuna izango, baina Elgoibarko musika taldea da. Expresion Sonora 1971 urtean desegin zen eta Koska jaio zen; bere musikarekin bi disko argitaratu zituen talde elgoibartarrak.

Hainbat urtetan oholza gainera igo gabe egon ostean, hilaren 25ean, aspaldiko partez kontzertua eskainiko du Eibarko Coliseo antzokian, 19:00etan. Garai bateko jarraitzaileek, berriro euren musikaz gozatu ahal izango dute.

Elgoibartarrak, baina, ez dira bakarrik ariko, Zestoako Leok'k taldearekin batera joko dute. Expresion Sonorak iraun zuen bi urteetan ospe garrantzitsua izan zuen. 1969ko irailean hasi ziren eta besteak beste, Los Bravos talde ezagunen telonero izan ziren.



Kultur Etxean Shanty Oriaren margoak eta eskulturak ikusi ahal izango dira gaurtik aurrera



Kultur Etxeko erakusketa gelan erakusketa berri bat inauguratuko dute gaur: Shanty Oriaren lanak ikusi ahal izango dira bertan. Artista elgoibartarraren margoak eta brontzezko eta burdinezko eskulturak biltzen ditu erakusketak, eta azaroaren 2ra arte bisitatu ahal izango da.

“San Frantziskon jaio nintzen; ez kaliforniakoan, Elgoibarkoan baizik. Egiten

ditudan *gauzatxoak* erakutsi nahi dizkizuet, gustuko izango dituzuelakoan”, egin du gonbitea obren egileak.

Aste osoan zehar ikusi ahal izango dira elgoibartarraren obrak. Honakoa da erakusketaren ordutegia: asteleheneetik zapatara 19:00etatik 21:00etara, eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

“Elgoibarko Herria” kartel lehiaketa martxan

Inazio Bereziartua Musika Eskolak 2009ko “Elgoibarko Herria” Instrumentu Taldeen Lehiaketarako kartela aukeratzeko deia egiten du. Nahi duen guztiak hartu ahal izango du parte, ez dago adin mugarik eta norberak nahi duen teknika aukeratu dezake. Lanek bi baldintza bete beharko dituzte: kartelaren tamainak 63x43 cm. izan beharko du eta testuan hau eraman beharko du: “Instrumentu Taldeen VIII Lehiaketa “Elgoibarko Herria”.

Originalak helbide honetara bidali beharko dira: Inazio Bereziartua Musika Eskola (Aita Agirrerren Plaza 4 - 20870 Elgoibar, telefonoa 943 742 145). Entregatzeko azken eguna 2008ko azaroaren 14a izango da. Eta saria bakarria izango da: 300 eurokoa.

Gomendio onenak aukeratu dituzte

Gomendatzen dizut sariketaren irabazleak aukeratu ditzute. Aurten 26 gomendio eduki dituzte, aurreko urtean baino dexente gehiago. Bi kategoriatan banatu dituzte: 12-17 urte bitartekoena eta 18-34 bitartekoena atala. Gaztetxoenen ataleko irabazlea Joana Rodriguez izan da Liverpooleko gomendioarekin: ikus-entzunezko materialean gastatzeko 200 euro lortu ditu. Eta nagusien mailan Estitxu Astigarragak lortu du saria Greziako Myrtos hondartzako gomendatzeagatik. Ikus-entzunezko materialean edo oporralditxo batean gastatzeko 350 euro lortu ditu.

Euskal dantza ikastaroan izena eman daiteke

Euskal dantzen ikastaroa hasiko dute Elgoibarren astelehenean, eta izena eman nahi dutenek oraindik ere badute aukera. Parte hartu nahi izanez gero, musika eskolara joan behar da izena ematera, edo bestela, telefonoz deitu ondoko zenbakira: 943 742 145.

LANA

ESKAERA

- Mutil gaztea, edozein lan egiteko prest. ☎ **660 213 652**
- Emakumea esperientziarekin, gauze edo asteburuetan, umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest. ☎ **650 034 445**
- Neska, garbiketa lanak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest. ☎ **663 430 810**
- Neska, zerbitzari edo sukaldari laguntzailerako prest. ☎ **688 682 398**
- Emakumea lanerako prest, garbiketa lanak edo pertsona zaharrak nahiz umeak zaintzuz. ☎ **659 639 296**
- Emakumea etxeetako portalak edo elkarteak garbitzeko prest. ☎ **690 701 118**
- Mutil gaztea, zerbitzari edo igeltseri lanak egiteko prest. ☎ **690 701 118**
- Emakumea, pertsona zaharrak nahiz umeak edo garbiketa lanerako prest. (arratsalde edo gauetan) ☎ **671 476 869**
- Neska gaztea, lanerako prest. ☎ **671 820 691**
- Neska gaztea, garbiketa lanak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (orduka). ☎ **699 637 269**
- Emakumea, lanerako prest. Nagusialki zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **639 020 180**
- Mutil gaztea, zerbitzari lanak egiteko prest. ☎ **943 74 03 85 (Mateo)**
- Neska gaztea, umeak zaindu edo garbiketa lanerako prest. Umeekin esperientzia; irakasle titulua. Ordutegi zabala. ☎ **638 012 182.**
- Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. 18:00 - 09:30 ☎ **699 813 826**

- Mutila, lanerako prest. Zerbitzari lanetan esperientzi handia, banatzaile bezala ... ☎ **616 690 415**
- Emakumea, adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **616 690 415**
- Emakumea, etxeko lanak egiteko prest (arratsalde) ☎ **943 743 251**
- Neska gaztea, umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (egun osoz edo ordu batzuetarako). ☎ **660 289 049**
- Neska, pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest. ☎ **678 939 382**
- Neska gaztea, edozein lanerako prest arratsalde (esperientzia umezaintzaile bezala) ☎ **685 796 177**
- Emakume euskalduna, kotxearekin baserrietan pertsona nagusia zaintzeko edo antzeko lanak egiteko prest. Esperientziarekin. ☎ **626 438 248**
- Emakume euskalduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest (garbiketa lanak egingo lituzke) ☎ **660 511 781**

ESKAINZA

- Olaizaga kiroldagiko harreraren lan egiteko jendea behar da. Euskara eta informatika derrigorrezkoa. ☎ **685 755 799 (Igeriketa lantzen)**
- Au-Pair behar da Londresen urtariletik udara arte. mirenlondon@hotmail.com ☎ **667 710 753**
- Sukaldari laguntzailea edo sukaldaria behar da. ☎ **943 743 196**

ETXEBIZITZA

SALGAI

- Pisua Altzolan, salgai. Hiru logela, sukalka, bainugela eta biltegia. 108.000 euro, negoziagarriak. ☎ **680 707 639**

ALOKAIRUA

- Bilbon 40m² ko atikoa alokagai, Sabino Arana etorbidean, Urkijo kale parean. Logela bat, sukalka, egongela eta bainugela. Berria balitz bezala. 850 euro, negoziagarriak. ☎ **647 262 225**
- Etxea alokairuan bilatzen nabil. Bi edo hiru logelakoa ☎ **696 246 962**
- Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ **658 379 393**

MOTORRA

- Hyundai Getz, gasolina, aurten eresia, berria. Hiru ate. ☎ **664 126 273 / 605 585 057**
- Ford Fiesta 1.8 Diesel autoa salgai. Egoera onean, errebisio guztiak pasata. 2000 euro. ☎ **680 903 394 (Aitor)**
- Golf 1.6 autoa salgai (1999 urtekoa). Egoera oso onean, 108.000 Km ditu, 4000 euro. ☎ **670 429 380**
- Iveco Daily furgoneta, salgai. 2800 turbo motorduna. ☎ **607 393 114 / 678 623 114**

BESTELAKOAK

- Etxeko altzari, etretrogailu, oheko arropa eta gortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Lur zati bat saltzen da. Azkaratetik Azkoitia bidean, pistaz ondo inguraturikoa, bi hektara ingurukoa. ☎ **671 977 171**



IKASTAROAK

TXAPA ETA PINTURA

Txapa eta pintura langabetuentzat. Epea: Urriak 20

LANA

EHORZLEA

Eskoriatzako Udalean langile-ehorze bat kontratatatzeko oposizio-lehiaketa. Epea: Azaroak 3

KULTUR EKINTZA LAGUNTZAILEA

Arrasateko Udalerako Kultur ekintzetako bi laguntzaileen lan-postua betetzeko deialdia. Epea: Urriak 20

HODI ITURGINA

Arrasateko udalean hodi-iturgin lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: Urriak 20

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61
Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Asteleheneetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

Erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldia urriak 25ean

Gernika
Amorebieta
Durango
Urkiola
Legutiano
Gasteiz

Hitza Hitz ekimena

Gipuzkoarrok ERABAKIA hitza osatzera LEGUTIANO herrira deituak gara. Goizeko 11etan hitza osatzeari ekingo zaio.

Autobusak dohainekoak izango dira. Apuntatu zaitez!
Telf: 675718466



• Zorionak **Manex!** Gure hartz txikik atzo urte bete! Muxu potolo bat Maddi eta etxeko guztien partez.



• Zorionak **Maria,** asteazkenean zortzi urte bete zenituelako. Familiakoek partez.



• Zorionak **Unai** Bihar sei urte gure piratak! Patxoak etxekoek, batez ere Oier, Leire eta Juneren partez.



• Zorionak, **Nahia,** astelehenean zazpi urte egingo dituzulako. Etxekoek, eta bereziki Danelen partez.



• Zorionak, **Maialeni!** Domekan bederatzia urte! Zelan pasatzen den denbora! Guraso eta Iratiren partez.



• Zorionak, **Alba,** zure lehen urtebetetzean. Ondo pasa hilaren 21ean guraso Diego eta Marisarekin.



• Zorionak, **Ainhitze,** hilaren 21ean zortzi urte egingo dituzulako. Amama, aittitta eta familiakoak.



• Urriak 18, ez dugu inoiz ahaztuko zure jaiotza eguna, **Nora.** Gure alaitasuna izan zara. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Jenni,** gaur 17 urte egin dituzulako. Familiakoek partez. Animo!



• Zorionak, **Maitane,** atzo hamar urte egin zenituelako. Familiakoek partez.



• Zorionak, **Sara,** zure urtebetetze egunean. Aittitta eta Loliren partez. Domekako bazkarian ikusiko gara.



• Zorionak, **Iker,** familiako guztien partez, muxu handi bat.

OSPAKIZUNAK



la datorren urtean gehiago elkartzen garen! 23 urteren ondoren, merezi izan du! Honek jarraipena behar du.



• Zorionak, **pareja!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Muxu handi bat familiakoek partez.



• Zorionak **Nora eta Ekaitz** zuen laugarren urtebetetzean. Etxekoek, eta bereziki, Aneren partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12

OKINDEGIA

19 domeka **DOÑA MERCEDES**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 17 Zabaleta
- 18 Etxeberria (Errosario)
- 19 Etxeberria (Errosario)
- 20 Ibañez
- 21 Garitaonandia
- 22 Etxeberria (Santa Ana)
- 23 Fernandez
- 24 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**

Egin klik



www.elgoiBARREN.net

musika

17 barixakua

22:15 Yuri Gagarin Trio &
Antonio Vega

Errabaljazz jaialdiaren barnean,
kontzertua izango da Herriko
Antzokian.

19 domeka

12:30 Udal Musika
Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

1. Ronda en Castilla
2. Bocetos del Caucasos
3. African Symphony
4. Zapateado
5. Bella Italia
6. Cordilleras de los Andes

hitzaldiak

21 martitzena

19:00 Julio Ibarra eta Iñaki
Eizmendiren hitzaldia

Seme-alabak euskaraz hezte-
ko hitzaldia eskainiko dute.
Hitzaldia gazteleraz izango da.
Kultur Etxean.

23 eguena

19:00 Julio Ibarra eta Iñaki
Eizmendiren hitzaldia

Seme-alabak euskaraz hezte-
ko hitzaldia eskainiko dute.
Hitzaldia euskaraz izango da.
Kultur Etxean.

erakusketak

17 barixakua

19:00 Shanty Oriaren
erakusketa

Shanty Oria elgoibartarraren
margoak eta eskulanak izango
dira ikusgai Kultur Etxean.
Azaroaren 2ra arte egongo da
zabalik erakusketa.

LUDOTEKA

**Dagoeneko,
200
bazkide gara!**

Eskerrik asko!



GAZTELEKUA

**URRIAK 18
LARUNBATA**

**GIZA
FUTBOLINA**

**gaztelekuan
17:00etatik aurrera.**

**Euria eginez gero,
Ikastolako frontoian.**



«Venganza»

18, zapatua: 19:00/22:15
19,domeka: 19:00
20, astelehena: 21:30
Herriko Antzokian

“Venganza”, Frantzia, 2008.
Zuzendaria: Pierre Morel. Aktoreak:
Liam Neeson, Maggie Grace, Famke
Janssen. Iraupena: 94 min.
AEBetako Gobernuako agente sekretu

bat erretiratuta dago. Baina bere ala-
ba nerabea bahitu egingo du gaizkile
talde batek, Parisen oportetan dene-
an. Orduan agentea akziora itzuliko
da, alaba salbatzeko helburuarekin.

antzerkia

23 eguena
17:30 1.728 animali kontu
 Kutxaren Gizarte Ekintzak antolatuta, umeentzako antzerkia izango da. Udal Liburutegian.

besteak

23 eguena
10:00 30+10 Mintegia
 Hizkuntza kudeaketaren gaineko ponentziak eskainiko dituzte adituek IMHn.



Gure gomendioa

Yuri Gagarin Trio & Antonio Vega
 Gaur, barixakua, 22:15ean Herriko Antzokian

Yuri Gagarin Triok eta Antonio Vega kantari ezagunak kontzertu berezia eskainiko dute gaur gauean, Errabal Jazz jaialdiaren barnean. Antonio Vega "movida madrileñako" Nacha Pop talde esanguratsuenetako baten abeslaria ere bada.



Zerikasi

IKASTAROAK

Mendiko meteorologia ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2008-10-21 / Bukaera data: 2008-10-30
 Non: Altzolan
 Izenemate bukaera: Kontsultatu

Esperientzia Eskola

Norentzat: 50 urtetik gorakoentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2008-10-24 / Bukaera data: 2009-5-22
 Non: Eibarren
 Izenemate bukaera: Urriak 23

Arreta klinikoa

Norentzat: Langabetuentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2008-10-27 / Bukaera data: 2008-12-22
 Non: Elgoibarren
 Izenemate bukaera: Hasi baino hiru egun lehenago

Geriatría laguntzailea

Norentzat: Langabetuentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2008-11-10 / Bukaera data: 2009-2-17
 Non: Elgoibarren
 Izenemate bukaera: Plazak bete arte

Mendi ibilbideak

Norentzat: Kutxan kontua dutenentzat
 Hizkuntza: Euskaraz
 Hasiera data: 2008-11-23 (hiru orduko ikastaroa)
 Non: Deban
 Izenemate bukaera: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«El precio del perdón»

(Zinema soziala, ikusentzunezkoa)
 17, barixakua: 19:00
 Kultur Etxean

«1.000 años de oración»

(Ongarri Zine Kluba)
 23, eguena: 21:30
 Herriko Antzokian

«Kung Fu Panda»

(Umeentzako)
 19, domeka: 16:30
 Herriko Antzokian



klik - klak

stephany eguez

Zure aurreneko musua espero bezalakoa izan zen?

Bai, espro bezalakoa izan zen; normal xamarra.

Sexuaz asko dakizu?

Ez, ez dakit. Azaldu didatena. Informazioa asko dago, eskolan ematen digute, eta lagunen artean ere komentatzen ditugu gauzak.

Musuak jaso ala eman?

Aukeran, jasotzea nahiago.

Maitemindu zara inoiz?

Baietz uste dut, maiteminduta nagoela. Baina, ez dakit ziur.

Bizi izan dituzun uneen artean, zein berreskuratuko zenuke gustura?

Boliviara bueltatzea nahiko nuke. Bi urte daramatzat Elgoibarren, eta gustura nago, baina, faltan botatzen dut nire herria.

Zein famatu agertzen da zure fantasietan?

Ez zaizkit abeslariak, eta aktoreak-eta gustatzen; hemengo mutilak, gertukoak, gustatzen zaizkit.

Noren azalean bizi nahi izango zenuke egun batez?

Ni neu izan nahi dut; sekula ez nuke nahi izango beste bat izan.

Ama izan nahi duzu?

Bai, izango naizela uste dut.

Zertarako egin nahi dituzu hamazortzi urte?

Lana egin eta nire ikasketak ordaintzeko. Aktore izan nahi dut, baina medikuntza ikastea gustatuko litzaidake.

Jeloskorra zara?

Ez naiz; beno, justua bakarrik.

Zenbat aldiz begiratzen diozu zure buruari ispiluan?

Bi aldiz: orrazten nagoenean eta kalera irten aurretik.

Zure bertute bat?

Gauzak argi eta garbi esaten ditudala, aurpegira; baina, hori defektua ere izan ahal da, konturatu gabe mina eman dezakedalako.

Telebistako gustuko saioa?

Telenobelak gustatzen zaizkit.

Maitasunean eta gerran denak balio du?

Baietz uste dut, zure esku dagoen guztia egin behar duzu.

GIDA KOMERTZIALA
2009

lazko gidan zure negozioaren telefonoa agertu ez bazen,

deitu zenbaki honetara:

943 74 37 04

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Nola lagundu gure
seme-alabei
euskaraz bizi daitezen?

HITZALDIA

Hizariak



Elgoibarko Udala

**HITZALDIA
EUSKARAZ
IZANGO DA**

Julio Ibarra: Kostarik, inguruko nahiko eskolan baten bizi den guraso moduan, seme-alabek euskaraz ahalki eta gohen egri ditzaten, egiten duen estrategia azalduko dugu. Gainera, adibideen bidez, hainbat aiperratan bene jokatuko modak kontatuko ditugu.



Itzi Etxewendik: Gizarte hezitzailea. Esperientzia handia du elebitasunaren inguruan eta euskaraz sastraketa, egitasunak, idelak eta balabildak erantsi ditugu, seme-alabei, erdizkunik izanda, eguneroko hainbatetan euskararekin abelak euskaraz egiten laguntzeko.

Eguna: **URRIAK 23, OSTEGUNA**

Ordua: **19:00**

Tokia: **KULTUR ETXEKO HITZALDI-GELA**

No sabemos euskera...
¿Cómo podemos ayudar a
nuestras hijas e hijos?

CHARLA

Ponentes

**LA CHARLA
SE REALIZARA
EN CASTELLANO**

Julio Ibarra: Desde la experiencia que da ser padre, el periodista nos contará lo que a su familia le ha ayudado la educación bilingüe. "Los hijos e hijas de los padres y madres que no saben euskera pueden crecer en euskera sin ninguna dificultad. Además pueden aprender mucho de ellos y ellas. ¡Deja que te enseñen!"



Itzi Etxewendik: Educadora social con una amplia experiencia fomentando el bilingüismo. Nos dará algunos datos para ayudar a nuestro hijos e hijas en el aprendizaje del euskera.

Día: **21 de OCTUBRE, MARTES**

Hora: **19:00**

Lugar: **CASA DE CULTURA (sala de conferencias)**



Merino
ZAPATA KONPONKETA

📍 **Aterkiak**

📍 **Poltsak**

📍 **Osagarriak**

📍 **Oinetakoen konponketak**

Upaiz Zaharra kalea, 2
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 743 854 - 665 705 616

www.zapateriamerino.com

**GILTZAK
BIKOIZTEN DIRA**



**...GARAJE ATEENAK,
AUTOEN ALARMARENAK,
SEGURTASUN GILTZENAK
ETA GILTZA MAESTROAK.**



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailleekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:

3.300€

(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS

finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€

ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, baimen instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradadore (H5 elementu) jartzeko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketak, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetatik baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin harikuntza alda egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**